

BIZTANLERIAREN ETA ETXEBIZITZEN ZENTSUAK. Lantokirako edo ikastetxerako mugikortasuna 2001. URTEA

Euskal AEn, egunero 440.000 lagun baino gehiago irteten dira beren udalerritik lanera joateko

Miloi bat gizon eta emakume irteten dira etxetik lantokira edo ikastetxera

Eustatek argitaratu dituen biztanleriaren eta etxebizitzaren 2001eko zentsuetatik ateratako emaitzen arabera, *lantokirako edo ikastetxerako mugikortasuna* arloari dagokionez, Euskal AEn 443.093 lagunek irteten behar dute egunero beren udalerritik, lanetatik.

Udalerri batetik bestera joaten diren Euskal AEko bost biztanletatik lau (% 82) hiru lurraldeen eremuan mugitzen dira. Bestalde, % 13k, 59.000 lagun baino gehiago, autonomia-erkidegoko hainbat udalerritan lan egiten dute (garraiolariak, banatzaileak, saltzaileak, eta abar). Beste autonomia-erkidego batzuetara mugitzen direnak % 3,6 dira (15.817), eta, ordena honetan, honako hauetara joaten dira: Nafarroara, Madrilera, Burgosera, Santanderrera eta Errioxara. Euskal AEko 3.036 biztanlek bakarrik (% 0,7 baino gutxiago) lan egiten dute atzerrian. Europar Batasuneko herrialdeetara joaten dira, batez ere, 2.159 hara mugitzen baitira. Bigarrenik, Estatu Batuetara joaten dira, 304 lagun guztira.

15 urte baino gehiagoko ikasleen % 54 (100.000 inguru) bizilekua duten udalerritik kanpo ikasten dute

15 urte baino gehiagoko 100.625 (adin horietakoen % 54) bizi diren udalerria uzten dute, ikasketengatik.

Gehienek (90.000 inguru) Euskal AEn ikasten dute, eta 7.536k (% 7,6), aldiz, Espainiako beste probintzia batzuetan. Aukeratzen dituzten lekuak Nafarroa, Madril, Bartzelona eta Zaragoza dira. 1.673 (% 1,6) besterik ez doaz atzerriara, eta gehien aukeratzen diren herrialdeak Erresuma Batua, Frantzia, Irlanda eta Estatu Batuak dira.

Datu horiek 1.048.727 lagunekoa talde zabalago baten barruan sartuta daude, lantokira edo ikastetxera joateko egunero etxetik irteten direnen taldean, hain zuzen.

Udalerriaren barruan mugitu behar duten bost lagunetik batek baino gutxiagok erabiltzen du garraio publikoa

Bizilekua duten udalerriaren barruan mugitzen diren lagunen % 44k ibilgailu pribatua erabiltzen dute gehienbat, gidari nahiz bidaiari. Oinez mugitzen direnak % 35 dira, eta % garraio publikoa ez dute 17k baizik erabiltzen. Motorrez edo bizikletaz mugitzea aukeratzen dutenak % 2 dira bakarrik.

Udalerri barruko ibilaldien % 80 hogeita minutu baino gutxiagokoak dira, eta egoera horretan direnen % 52k egunean joan-etorri bat baino gehiago egiten dute; gainerako % 48ek joan-etorri bakarra egiten dute.

Lana dela kausa bizilekua duten udalerritik beste batzuetara mugitzen direnen artean, automobila da garraio biderik erabiliena: % 72k modu hori aukeratzen dute, gidari nahiz bidaiari. % 23k baino gutxiagok erabiltzen dute garraio publikoa. % 1 baino gutxiago motorrez edo bizikletaz mugitzen dira. Ibilaldiaren batez besteko iraupena 30 minutu baino gehiagokoa da kasuen % 30etan; % 30etan, 20 eta 30 minutu bitartekoa; eta % 38tan, ez da 20 minutura iristen.

Lantokira joateko, hiru bizkaitarretik batek baino ez du erabiltzen bere ibilgailua; arabarren eta gipuzkoarren artean, ordea, ia erdiek

Lurraldeen arteko ezberdintasunei dagokienez, ikusten dugu Araban, mugitzeko, % 56k ibilgailu pribatua erabiltzen dutela, gidari zein bidaiari; Gipuzkoan gutxiago dira, % 47; eta Bizkaian are gutxiago, % 33. Halaber, nabarmentzekoa da Araban biztanleen % 27 mugitzen direla oinez; Gipuzkoan, aldiz, % 35; eta Bizkaian, are gehiago, % 40.

Udalerri batetik bestera mugitzen direnen artetik, lantokira joateko egiten dutenak baino kontuan hartzen ez baditugu, nabarmentzekoa da hiru lurraldeetan gehienek ibilgailu pribatua aukeratzen dutela: Araban % 76k aukeratzen dute modu hori; Gipuzkoan, % 77k; eta Bizkaian, garraio publikoaren eskaintza handiagoa dagoenez, % 68k.

5 ikasletatik bat automobileraz joaten da beste udalerri batera ikastera.

Bizilekua duten udalerrian ikasten duten 16 urte edo gehiagoko gazteen kasuan, % 49,2 oinez joaten dira. % 11,4k, aldiz, automobil pribatura jotzen dute. % 4 baino apur bat gutxiago motorrez edo bizikletaz mugitzen dira. Garraio publikoa % 35en aukera nagusia da. Azken modu hori erabiltzen dute udalerritik ikastetxera joateko irteten direnen artetik gehienek ere, % 67k hain zuzen; ibilgailu pribatua % 19k baino ez, eta motorra are gutxiagok, % 1ek.


Vitoria-Gasteiz egunean 11.934 lagun hartzen ditu, eta 8.841 ateratzen dira Arabako hiriburutik, lantokira joateko.

Bizkaiko hiriburuak, Bilbaok, egunean 61.572 lagun hartzen ditu, eta hiri horretatik 42.051 irteten dira lan egitera.

Donostia-San Sebastia egunero 20.051 lagun irten eta 26.578 sartzen dira, lan egitera.

Bilbaotik Vitoria-Gasteiza, egunero, lanagatik edo ikasketengatik, 2.606 lagun doaz; Bilbaotik Donostia-San Sebastiana, 942; Vitoria-Gasteiztik Bilbaora, 2.223, eta Gipuzkoako hiriburura, 735. Donostia-San Sebastia egunero Bilbaora 668 lagun joaten dira; Vitoria-Gasteiza, berriz, 611.

**Udalerrian landunen erakarmenak duen tasa,
hiriburuka eta eskualdeka. 2001. %**



Iturria: Eustat. (Enplegua=udalerrian lan egiten du, Okupazioa=udalerrian bizi eta han lan egiten du)

5 etxegunetik 1ek euren ibilgailu bat baino gehiago dute

Euskal AEko etxeguneeen % 71k badute euren ibilgailua. Bizkaian, familien % 50,4k du automobil bat du; % 15ek, bi; eta % 2,8k, bi baino gehiago. Gipuzkoan, % 52,3k du automobil bat; % 17,4k, bi; eta % 3,6k, bi baino gehiago. Ehuneko horiek antzekoak dira Araban, non etxeguneeen % 53,7k euren auto bat duten, % 18,7k bi, eta % 3,7k bi baino gehiago.

Azkenik, Arabako etxeguneeen % 24k ez dute euren ibilgailurik, ez eta Gipuzkoakoan % 27k eta Bizkaikoan % 31,2k ere.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Jesús Rodríguez Marcos

Tel.: +34-945 017 531. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es